

Gatazka armatuaren oroimena euskarazko narratiba garaikidean genero ikasketen argitan

Tesiaren egilea: Lorea Azpeitia Anta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia

Jakintza-arloa: Literatura eta Kritika Feminista, Historia, Antropologia, Soziologia

Tesi-zuzendaria: Lourdes Otaegi Imaz

Tesiaren laburpena:

Ikerlan honetan ETako zein erakunde horrekin lotu izandako mugimendu politikoetan aktiboki parte hartu duten emakumeen genero-irudikapen literarioak aztertu dira, betiere ikuspegi feministatik eta, zehazki, euskal literaturako eleberriez osaturiko corpus zehatz batean oinarrituta. Horretarako, aztergaiaren testuinguru historikoa (euskal gatazka armatuarena, ETA erakundea sortuz geroztik berau desegin artekoa) jorratu da gizarte-zientzien laguntzaz, bereziki historiak eta soziologiak eskainiriko iturrien bidez, eta metodo teoriko-analitiko gisa, kritika feminista soziologikoa eta antropologikoa baliatu direlarik. Azkenik, testuen azterketa xeheari ekiterakoan, literatur kritika feminista eta narratologia baliatu dira, materialismo kulturalen planteamenduei jarraikiz.

Azterlan honen corpora hautatzeko honako muga-irizpide hauek finkatu dira: batetik, euskal literaturaren baitan militante gisa irudikatutako protagonista edo pertsonaia femenino esanguratsurik duten eleberriak izatea eta, bestetik, beranduenez 2019. urtean argitaratuak izatea. Zehazki, honako eleberri hauek aztertu dira, hurrenkera kronologikoan: Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1994), Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* (1995), Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998), Har-kaitz Canoren *Pasaia blues* (1999), Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* (2001), Agurtzane Juanenaren *Esan gabe neukana* (2003), Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017), Pako Aristiren *Rosa itzuli da* (2018), Yoseba Peñaren *Hariak* (2018), Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019) eta Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019).

Laburbilduz, azterlan honek lau helburu nagusi ditu: lehenik, euskal fikziozko lanen kronologia bat garatzea; bigarrenik, euskal gatazka armatuaren inguruko *dispositifaren* diskurtsoak eztabaidatzea; hirugarrenik, euskal gatazka armatuaren inguruko kontakizun hegemoniko patriarkala zalantzan jartzea; eta, laugarrenik, literatur pertsonaien genero-erregimenaren irudikapenen analisiaren bidez protagonista militanteen agentzia politikoa eta genero-zapalkuntzak eta estereotipoak agerian jarri eta ekarpen akademiko honen erdigunean kokatzea.